

9/1997 Foru Araua, urriaren 14koa, Bizkaiko Lurralde Historikoarena, Kooperatiben Zerga Araubideari buruzkoa (BAO Azaroaren 3koa)

KOOPERATIBEN ZERGA-ARAUBIDEARI BURUZKO URRIAREN 14KO 97/9. FORU-ARAU

Kooperatiben mugimenduak Euskal Herriko errealitate ekonomikoan duen garrantzia eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren erakunde eskudunek haien sustapen eta babesean beti izan duten interesa agerian jarri ziren Kooperatiben Zergapideari buruzko abenduaren 17ko 9/1991 Foru Araua aldarrikatu zenean, nabarmenki hobetzen baitzuen abenduaren 19ko 20/1990 Legeak, lurralde arruntan, mota honetako entitateentzat ezarri zuen tratamendu fiskala.

Hala ere, Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak mota honetako entitateei buruzko arautegian egin zuen aldakuntzak eta, arestiago, ekainaren 26ko 3/1996 foru Araua aldarrikatuz Sozietateen gaineko Zergari egindakoak, beharrezko egiten dute kooperatiba sozietateen zerga-araubidea eraldatzea.

Horretarako, honako Foru Arauak zerga-araubide hori ezartzen du aurrekoan zenbait berritasun sartuz, hauek batzuk aipa daitezkeela:

- Babes berezipeko kooperatibetan sartzen dira irakaskuntzako kooperatibak, bai gurasoenak bai irakasleenak eta erabatekoak.
- Lehenbiziko aldiz aitortzen da, zergen esparruan, kooperatiba mistoen figura, bide ematen zaiela, era honetan, babes fiskalak ematen dituen onurei heldu ahal izateko.
- Lehenbiziko aldiz araupetzen dira, zergen esparruan, partaidetza bereziak.
- Kooperatiba-taldeen zerga-araubidea araupetzen da.
- Berritasun garrantzizkoa ere bada kooperatiben finantza saneamendurako nahiz beren sustapen eta garapenerako egiten diren ekarpenei aurreikusi zaien tratamendu fiskala, piztu egiten direla, era honetan, kooperatiben arteko elkartasun-mekanismoak.
- Bigundu egiten dira sortu berriak diren babes berezipeko kooperatibak Sozietateen gaineko Zergan aurreikusten den zerga oinarriaren txikipenaz baliatu ahal izan daitezkeneko eskakizunak.
- Bazter uzten da Sozietateen gaineko Zergan kooperatibaemaitzak eta kooperatibaz kanpoko emaitzak bereizten zituen sistema zaharra. Horretarako, "mota bakarra" duen sistema bat sartzen da, zergaren likidazio egitura orokorrarekin parekatzen duena, horrek suposatzen duen zeharkako presio fiskalaren gutxipen nabarmenarekin. Era honetan, erraztu ere egiten da likidazioa galeren konpentsazioa kalkulatzeko unean, lehengo kuoten konpentsazioa zerga-oinarrien konpentsazioko araubide orokorrarekin ordezkatzeko dela, edo Zerga likidatzeko unean, kooperatiba sozietateen taldeak direnean.
- Mota bateko eta besteko emaitzak ez bereizte honek, Euskadiko kooperatibak biltzen dituzten erakunde ezberdinek behin eta berriz eskatuak, Nahitaezko Emendioko Fondorako eta Hezkuntza eta Kooperatiben Sustapenezko Fondorako (lehen hezkuntza eta gizarte sustapenezko fondo) zuzkiduren tratamendu fiskala aldatu beharra ekarri du.

- Tasa txikitua aurreikusten da Sozietateen gaineko Zergan bertan kooperatiba txikientzat, sustatu egiten dela, era honetan, gure Lurralde Historikoan hain garrantzizkoa den autoenplegu-modalitate hau.

LEHEN TITULUA ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Erabilera eremua.

1. Xede du Foru Arau honek Bizkaiko Lurralde Historikoaren zerga-arautegia aplikagarri zaien Kooperatiba Sozietateen zerga araubidea araupetzea, euren gizarte-funtzioa, jarduerak eta ezaugarriak aintzat hartuta.
2. Foru Arau honetan berariz ohartarazten ez den guztian, Bizkaiko Lurralde Historikoaren zerga-arau orokorrak erabiliko dira.

2. artikulua. Kooperatiben sailkapena.

1. Foru Arau honetan ohartarazten denaren ondorioetarako, bi multzotan sailkatzen dira Kooperatiba Sozietateak:
 - a) Babes fiskalpeko Kooperatibak.
 - b) Babesgabeko Kooperatibak.
2. Babes fiskalpeko Kooperatibak, berriz, bi multzotan sailkatzen
 - a) Babespeko Kooperatibak.
 - b) Babes berezipeko Kooperatibak.

II. TITULUA KOOPERATIBEZ

I. KAPITULUA BABESPEKO KOOPERATIBEZ

3. artikulua. Babespeko Kooperatibak.

Foru Arau honen ondorioetarako, babespeko kooperatiba iritziko zaie, euren erakuntza eguna gorabehera, Euskadiko Kooperatibei buruzko Legearen edo, hala badagokie, aplikagarri zaien Kooperatibei buruzko Legearen printzipio eta xedapenei atxiki eta titulu honetako IV. kapituluan ohartarazten diren zioetan erortzen ez diren izakundeei.

II. KAPITULUA BABES BEREZIPEKO KOOPERATIBEZ

4. artikulua. Babes berezipeko Kooperatibak.

1. Babes berezipeko kooperatiba iritziak izan eta, Foru Arau honetan adierazten diren eskakizunak betez, 25 eta 26. artikuluetan ezartzen diren zerga-onurei heltzeko gai izango dira, hauetariko lehen mailako babespeko kooperatibak:
 - a) Lan elkartzeko Kooperatibak.
 - b) Nekazaritzako Kooperatibak.
 - c) Taldekako ustiapenezko Kooperatibak.

- d) Kontsumoko Kooperatibak.
 - e) Irakaskuntzako Kooperatibak.
 - f) Etxebizitzetarako kooperatibak.
2. Bigarren eta hurrengo mailako kooperatibei dagokienean, 27. artikuluan xedatzen denari egongo zaio.
 3. Kooperatiba mistoei ez zaie inoiz ere babes berezipeko iritziko.

5. artikulua. Lan elkartuzko Kooperatibak.

Babes berezipekotzat joko dira ondorengo eskakizunak betetzen dituzten lan elkartuzko kooperatibak:

1. Taldean inorentzako ondasun eta zerbitzuak ekoizteko, euren lan pertsonala kooperatiban ematen duten pertsona fisikoak, gehienbat, elkartzea.
2. Aurrerakinak eta kooperatiba itzulkinen kontzeptuan eskagarriak diren kopuruak barne, benetan sortarazitako guztirako ordainketen batezbesteko zenbatekoa, jarduera-alor berorretan, kooperatiban inoren konturako langileak izanez gero jaso behar izan zituzketen ohizko ordainketen batezbestekoaren 100eko 200etik gorakoa ez izatea.
3. Lan-kontratupean inoren kontura lan egiten duten langileek urtean egiten dituzten orduen kopuruak ez ditu gainditu behar Euskadiko Kooperatibei buruzko Legean ezarritako mugak edo aplikatu beharreko kooperatibei buruzko legean ezarritakoak.

6. artikulua. Nekazaritzako Kooperatibak.

Babes berezipekoak izango dira ondorengo baldintza bete ditzaten nekazaritzako kooperatibak:

1. Kooperatibaren jarduerak, estatutuen arabera, hartzen duen lurralde-eremuan dauden nekazaritza, basogintza, abeltzaintzako ustiatzaren edo nahasien titularrak diren pertsona fisikoak elkartzea.

Halaber, bazkide izan daitezke babespeko nekazaritzako eta taldekako ustiapenezko beste kooperatiba batzuk, Foru Arau honen Lehen Xedapen Gehigarrian ohararazten direnetako eraldakuntzazko nekazaritzako sozietateak, izakunde publikoak, sozietate-kapitalean gehienbat izakunde publikoak partaide dituzten sozietateak eta aurreko lerroaldeko baldintzak bete ditzaten ondasun eta eskubideen erkidegoak, pertsonak fisikoek soil-soilik osatuak.

2. Beren nekazaritzako jardueretan honako muga hauek gordetzea:
 - a) Berak edo bere bazkideek ustiatzeko xedearekin kooperatibak —edozein prozedura erabilita— eskuratzen, alokatzen, lantzen, ekoizten, egiten edo fabrikatzen dituen gaiak, produktuak nahiz zerbitzuak ez zaizkie bazkideak ez diren hirugarrenei lagako, salbu eta kooperatibaren jardueraren soberakin arruntak badira edo kooperatibari egotzi ezin zaizkion inguruabarren ondorioz lagatzen badira.

Dena den, nekazaritzako kooperatibek petrolio-produktuak txikizka banatu ahal izango dizkiete bazkideak ez diren hirugarrenei Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legeko 110.2 artikuluan ezarritako mugen barruan.

 - b) Beste ustiatzari batzuetako ekoizkinak, kooperatibaren edo bere bazkideen ustiatzarietako antzekoak, ez kontserbatu, tipifikatu, eskuztatu, eraldatu, garraiatu, banatu edo merkaturatzea, kooperatibaren ekoizkinek lortutako merkatu-prezioaren 100eko 5etik gorakoan edo, estatutuek horrela aurreikusten badute, prezio berorren 100eko 40tik gorakoan, ekonomi ekitaldi bakoitzean.

Atal honetan adierazten diren prozesuetarik, kooperatibak inoren ekoizkinak erabiltzen ditueneko bakoitzerako zehaztuko da portzentaia hori.

3. Bazkide bakoitzaren landalur-ondasunei, 1. zenbakian aipatzen den lurralde-eremuan daudenei, dagokien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren zerga oinarriak 60.101,21 eurotik gorakoak ez izatea.

Abel ustiategi lokabeen titularrak diren bazkideak barruan izan eta abel ekoizkinen merkaturatze eta eraldakuntzan diharduten kooperatibak direnean, bazkide horietako bakoitzak, izakunde publikoak eta hauek sozietate-kapitalean partaide nagusi direneko sozietateak salbuetsita, ekonomi ekitaldi bakoitzean, kooperatiba barruan edo kanpo, egindako salmenta edo emateen kopurua 300.506,05 euroko mugatik gorakoa ez izatea.

Muga horiek aplikatzeko, beste kooperatiba edo sozietate edo ondasun-erkidego batzuk bazkide direnean, beraien zerga oinarriak edo salmenta-kopurua bazkide bakoitzari dagozkio estatutuen arabera dagokien heinean.

Salbuespenez, adierazi direnetatik gorako zerga oinarri edo salmenta-kopuruak dituzten bazkideak onartuko dira, baldin eta kopuru horiek, osoan hartuta, gainerako bazkideei dagozkien 100eko 30etik gorakoak ez badira.

7. artikulua. Taldekako ustiapenezko kooperatibak.

Babes berezipekotzat joko dira ondorengo baldintzak bete ditzaten taldekako ustiapenezko kooperatibak:

1. Bazkideak, nekazaritzako ustiapenaren gai diren lurren edo bestelako ondasun higiezinaren erabilera eta ustiapen eskubideen jabe izan eta eskubide horiek, bertan lan egin zein ez, kooperatibari lagatzen dizkioten pertsona fisikoak izatea. Halaber, bazkide izan daitezke, kooperatibari ondasunen gozamen eskubideak lagatu ez arren, bazkideek lagaturiko ondasunen eta kooperatibak edozein titulurengatik dituenen taldekako ustiapena egiteko bertan lan egin dezaten beste pertsona fisikoak ere.

Erabilera eta ustiapen eskubideen lagatzaile diren aldetik, kooperatibarekin bazkide ahal izango dira izakunde publikoak, izakunde publikoak sozietate-kapitalean partaide nagusi direneko sozietateak, pertsona fisikoek osaturiko ondasun eta eskubide-erkidegoak, nekazaritza eta baso probetxamenduak, herri-basoak eta Zuzenbide Zibilpeko antzeko izaerako gainerako erakundeak.

2. Lan-kontratupeko langileen kopurua kooperatibako bazkide langile guztien 100eko 30etiko gorakoa ez izatea.
3. Kooperatibaren landalur ondasunei dagokien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren zerga oinarrien guztirakoa, langile zein ustiapen-eskubideen lagatzaile diren bazkideen kopuruaz banatuz gero, 60.101,21 eurotik gorakoa ez izatea.
4. Kooperatibari, ustiapena osatzen duten ondasunen guztirako baliotik gorako lurrak edo bestelako ondasun higiezinak lagatzen dizkion bazkiderik ez egotea, izakunde publikoak edo izakunde publikoak bere kapitalean partaide nagusi direneko sozietateak direnean salbu.

8. artikulua. Kontsumoko kooperatibak.

Babes berezipekotzat joko dira ondorengo baldintzak bete ditzaten kontsumoko kooperatibak:

1. Pertsona fisikoak eta, hala denean, azken jasotzaile diren entitate eta antolakundeak elkartzeko, ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko eta kontsumitzaile eta baliatzaileen legezko eskubide eta interesak defendatu eta sustatzeko xedez.

2. Bazkide langileen guztirako ordainketen batezbestekoa, hala badagozkie, eskubidedun direneko kooperatiba itzulkinak barne, Foru Arau honetako 5. artikulua 2. idatzian ezartzen mugatik gorakoa ez izatea.
3. Bazkide ez diren pertsonen, beren lurralde eremuan, egindako salmentak kooperatibak, ekonomi ekitaldi bakoitzean, egindako guztien 100eko 10etik edo, estatutuek horrela ohartarazten badute, 100eko 50etik gorakoak ez izatea.
4. Aurreko zenbakian adierazten diren mugak eta 12. artikuluko 10. atalean ezartzen direnak ez zaizkie aplikatuko gutxienez laneko 30 bazkide eta laneko bazkide bakoitzeko, gutxienez, 25 bazkide kontsumitzaile dituzten kooperatibei. Bazkide horiei dagokienez, Foru Arau honetako 5 artikuluko 3. paragrafoan ezarritakoa bete behar da.

9. artikulua. Irakaskuntzako kooperatibak.

Babes berezipekotzat joko dira ondorengo baldintzak betetzen dituzten irakaskuntzako kooperatibak:

1. Jakintzaren edo hezkuntzaren edozein arlotan, maila, etapa, ziklo, gradu eta modalitate ezberdinetan, irakaskuntza-jarduerak burutzea, eskolaz kanpoko jarduerak eta lotuak ere egin ditzaketela, bai eta eskolaz kanpoko zerbitzu osagarriak eta irakaskuntza-jardueretarako lagungarri izan daitezen guztiak eskaini ere.
2. Irakaskuntzako kooperatibak ikasleen gurasoak, haien lege ordezkariak edo ikasleak eurak elkartzeko baditu, Foru Arau honetako 8. artikuluko 2 eta 3. idatzietan araupetzen diren eskakizunak bete beharko ditu.
3. Irakaskuntzako kooperatibak irakasleak eta irakasleko beste langileak eta zerbitzu eta materialak elkartzeko baditu, Foru Arau honetako 5. artikuluko 2 eta 3. idatzietan aurreikusten diren eskakizunak bete beharko ditu.
4. Irakaskuntzako kooperatibak erabateko edo sektorearteko izaera badu, Foru Arau honetako 5. artikuluko 2 eta 3. idatzietan eta 8. artikuluko 2 eta 3. idatzietan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu.

9 bis artikulua. Etxebizitza kooperatibak.

Babes berezipekotzat joko dira ondorengo baldintzak betetzendituzten etxebizitza kooperatibak:

- a) Bazkideentzat etxebizitza merkeak lortzeko helburua izatea.

Hori dela eta, etxebizitzak merketzat joko dira gehienez 120 metro koadroko azalera badute eta gainera, adjudikazioanduten prezioak ez badu gainditzen Euskal Autonomia Erkidegoko babes publikoko etxebizitzetarako ezarritakogehieneko prezioa 1,8 koefizienteaz biderkatuta ateratzenden kopurua.

Horretarako, adjudikazio prezioa etxebizitza eraikitzearen kostua eta etxebizitzari egotz dakioken lur zatiaren kostua batuz kalkulatu da.

Hala ere, etxebizitzok ez diote babespekoak izateariutziko horiekin batera negozioetarako lokalak, zerbitzu osagarriak eta urbanizazio obrak egiten direnean, baldin eta babes publikoko etxebizitzetarako buruzko legerian ezarritakomugen barruan egiten badira, nahiz eta kooperatibek eraikitako etxebizitzak babes ofizialekoak ez izan.

- b) Kooperatibak eraikitzen dituen etxebizitzak bazkideenohiko etxebizitzak izatea. Bazkideek inguruabar hori adierazi behar dute etxebizitzaren erosketa-agirian.

Horretarako, ohiko etxebizitza izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 89.8 artikuluan definitutakoa.

- c) Kooperatibak desegin gabe irautea, kooperatibak eraikitako etxebizitzak adjudikatu edo eskualdatzen diren egunetik hasita bost urteko epea igaro arte.
- d) Kooperatibaren estatutuetan beren beregi adierazi beharda etxebizitza adjudikatzen zaien bazkide guztiek betebeharko dituztela zerga legerian ohiko etxebizitzetarako ezarritako betekizunak, eta hori egin ezik kooperatibari kalte-ordaina eman beharko diotela, etxebizitzaren balioaren %10ekoa, gutxienez.

III. KAPITULUA BABESGABEKO KOOPERATIBEZ

10. artikulua. Babesgabeko kooperatibak.

Foru Arau honen ondorioetarako, babesgabeko kooperatiba iritziko zaiek arauz eraturik eta dagokien Kooperatiben Erregistroan errolderaturik egon arren, hurrengo IV. kapituluan, babes fiskalpeko kooperatiba izaera galtzeko, ohartarazten diren zioetan erortzen direnei.

IV. KAPITULUA BABES FISKAPEKO KOOPERATIBA IZAERA GALTZEA

11. artikulua. Babes fiskalpeko kooperatiba izatea galtzeko zioak.

Babes fiskalpeko kooperatiba izatea galtzeko zioa izango da ondoren zerrendatzen diren zertzeladetakoren batean egotea:

1. Nahitaezko Erreserba Funtserako eta kooperatiben hezkuntza eta sustapenerako nahitaezko kontribuziorako zuzkidurak ez egitea aplikatu beharreko kooperatiben legerian ezarritako kasuetan, bertan ezarritako baldintzak ez betetzea edo ezarritako kopurua ez zuzkitzea.
2. Kooperatibak dirauen artean banaezinak diren Emendio-Fondoak edo bere likidazio-unean geratzen den aktiboa bazkideen artean banatzea.
3. Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeko 68 bis artikuluan ezarritako kontribuzioak artikuluan honetan ezarritako helburuak ez beste zerbaitetarako erabiltzea.
4. Kooperatibaren balantzearen erregularizazioaren edo bazkideen sozietate-kapitalerako ekarpenen gaurkotzearen ondoriozko emaitzari buruzko arauak ez betetzea.
5. Bazkideen sozietate-kapitalerako ekarpenei lege-arauetan onartzen diren gehieneko mugetatik gorako korrituez ordaintzea edo, ekarpen horiek itzultzeko atzerpanearen zioz edo, Batzar Nagusiaren erabakiz sorturiko Fondo Berezi batera doazelako, sortarazi eta banatu gabeko kooperatiba-itzulkinen ziozko korrituak ordaintzerakoan, muga horiek gainditzea.
6. Bazkideei ziurtaturiko sozietate-itzulkinak Legean, Estatutuetan edo Batzar Nagusiaren erabakietan ezarritakoen heinekoak ez direnean.
7. Ekonomi-ekitaldiko galerak ez egozte, edo Legean ezarritako arauak, estatuak edo Batzar Nagusiaren erabakiak hautsiz egozte.
8. Bazkideen sozietate-kapitalerako ekarpenak lege onarturiko mugetatik gorakoak direnean.
9. Kooperatibak kooperatiba ez diren izakundeen sozietatekapitalean 100eko 25etik gorako partaidetza izatea.

Alabaina, partaidetza hori 100eko 50erainokoa izan daiteke izakunde horiek kooperatibaren jardueren gertagarri, osagarri edo menpeko diren jarduerak egiten badituzte.

Partaidetza horiek, guztira, ez dute kooperatibaren eskutarteen 100eko 50etik gorakoak izaterik.

Ogasun eta Finantza Sailak, aurretik eskatuta, goragoko partaidetzak onartu ahal izango ditu, babes fiskalpeko izatea galdu gabe, partaidetza hori kooperatibaren sozietate-helburuak betetzen lagungarri izan eta izakunde hauen funtsezko jokabide-arauen kontra joaten ez dela ziurtatzen bada.

Eskabidea aurkeztu eta, kooperatibari ebazpena berariz jakinarazi izan gabe, hiru hilabete igarotakoan, baimena emandakotzat hartuko da.

10. Kooperatibari datxezkion eragiketak bazkide ez den inorekin egitea, Legeetan onarturiko kasuetan salbu.
11. Horretarako muga duten kooperatibek, lege arauetan onartzen den kopurutik gorako soldatapeko langileak enplegatzea.
12. Lege arauetan ohartarazten den kopurutik beherako bazkide kopurua eduki eta hamabi hilabeteko epean ez erdiestea.
13. Sozietate-kapitala estatutuetan ezarritako gutxienezkotik beherakoa izan eta hamabi hilabeteko epean berrezarria ez izatea.
14. Kooperatibari datxekion jarduera edo sozietate-organoen jarduera, arrazoizko ziorik gabe, bi urtekoan geldiaraztea.
15. Bere helburua den enpresa amaitzea edo kooperatibaren jarduera egiteko ezintasun nabaria.
16. Kanpo-auditoretzarik eza, lege arauetan ohartarazten diren kasuetan.

12. artikulua. Ezohizko zertzeladak.

Ogasunaren Zuzendari Nagusiak, zioak azalduzko ebazpen idatzi bidez, baimena eman ahal izango du aurreko artikuluetan, bazkide ez diren gainontzekoekiko eragiketak egiteko eta soldatapeko langileak kontratatzeke, ohartarazten diren mugak ez aplikatzeko baimena eman ahal izango du, kooperatibari leporagarri ez zaizkion ezohizko zertzeladen ondorioz, honek bere jarduerak, epe eta kopuru jakinetan, zabaldu behar dituenean.

Eskabidea aurkeztu eta, kooperatibari ebazpenaren berarizko jakinarazpena egin gabe, hiru hilabete igarota, baimana emana dela ulertuko da.

V. KAPITULUA SOZietateen GAINeko ZERGAN APLIKAGARRI DIREN ARAU BEREZIAK

LEHEN SEKZIOA GUZTIENTZAKO XEDAPENAK

13. artikulua. Guztientzako xedapenak.

Honako V. Kapitulu honetan biltzen diren arauak aplikagarri izango zaizkie arauz eraturik eta dagokien Kooperatiben Erregistroan errolderaturik dauden kooperatiba guztie, are babes fiskalpeko kooperatiba izatea galtzeko zioetakoren batean sartzen badira ere.

Azken izakizun honetan, kooperatibek Sozietateen gaineko Zergaren tasa orokorraren arabera ordainduko dute zerga.

BIGARREN SEKZIOA ZERGA OINARRIAREN ZEHAZTAPENA

13.bis artikulua. Zerga oinarria

Bat. Kooperatiba sozietateek jasaten duten Sozietateen gaineko Zerga kalkulatzeko, haien zerga oinarrian bi osagai daude: zerga oinarri orokorra eta zerga oinarri berezia.

Bi. Zerga-oinarri orokorrean kooperatiban errenta guztiak sartzen dira, hurrengo 3. zenbakian aipatzen diren etekin osoak izan ezik.

Zerga-oinarri orokorra zehazteko Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan jasotako arauak aplikatuko dira, hurrengo paragrafoan eta foru-arau honen 14-17 eta 22. artikuluetan araututako berezitasunekin.

Hain zuzen ere, zerga-oinarri negatiboen konpentsazioari dagokionez, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 55. artikuluko 1 zenbakian aipatutako %70eko portzentajea tamaina txikiko kooperatibei aplikatuko zaie, foru-arau horren 13. artikuluan enpresa bat mikroenpresatzat edo enpresa txikitzat hartzeko ezarritakoa betetzen badute.

Hiru. Zerga oinarri berezian Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 35. artikuluan aipatutako errenta-iturrietatik sortutako sarrera osoak sartzen dira, kontuan izanik ordaintzailea zergadunari lotutako pertsona edo erakundea izan behar dela (Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 16. artikuluan ezarritakoaren arabera); ondokoak, aldiz, ez dira sartzen: foru arau honetako 22. artikuluan aipatzen diren kooperatiba-itzulkinak, zegapetze bikoitza ekiditeko hitzarmetan xedaturikoaren arabera norbere kapitalak hirugarrenei lagatzeagatik ateratako etekinenak, ez atxikipenik ez konturako sarrerarik aplikatzen ez zaienak, eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 33. artikuluko 2. idatz-zatian zergapetze bikoitza saihesteko ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten dibidenduak.

Zerga oinarri berezia kalkulatzeko foru arau honetako 17.bis artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

14. artikulua. Kooperatibari datxezkion eragiketen balioztapena.

Bat. Kooperatibek, euren sozietate-helburuak betetzeko, bazkideekin izan ditzaten eragiketak merkatuko balioaren arabera konpotututako dira.

Bi. Merkatuko balio iritziko zaio, alde lokabeen artean, eragiketa horiengatik, hitzartua izan dadin ondasun, zerbitzu eta prestazioen prezio arruntari.

Estatutu arauen arabera kooperatibak dihardueneko eremuan, alde lokabeen arteko eragiketa garrantzizkorik gertatzen ez bada, bazkideek egindako emanketen merkatuko balioa zehazteko, kooperatibak lortutako salmenta-preziotik egindako merkaturatze edo eraldakuntza jardueretarako ohizko gehikuntza gordina kenduko da.

Bazkide langileen eta lanekoen lanordain aurrerakinen zenbatekoa, jarduera-alor berean inoren konturako langile izanez gero jaso behar izan zituzketen ordainketei atxikiz hainbatuko da.

Taldekatu ustiapenezko kooperatibei egindako lurren edo bestelako ondasun higiezin erabilera eta ustiapen eskubideen lagapena, aldean lagapen horietarako egon dadin ohizko errentaren arabera balioztatuko da.

Hiru. Aurreko atalean xedatzen dena gorabehera, kontsumo, etxebizitza, nekazaritzako kooperatibak edo, beren estatutuen arabera, beren bazkideentzako zerbitzu edo horniketarako egiten dituzten kooperatibak direnean, eragiketen prezioztat hartuko da eragiketarako egiteko benetako prezioa, baldin eta, izakundearen gastu orokorren zatia barne, zerbitzu edo horniketarako horien kostutik beherakoa ez bada. Beherakoa izanez gero, kostu hori aplikatuko da.

Nekazaritzako kooperatibei dagokienean, sistema hau erabiliko da bai kooperatibak bazkideei egiten dizkien zerbitzu eta horniketetarako, bai bazkideek kooperatibari egin edo ematen dizkietenetarako.

15. artikulua. Gastu kengarri bereziak.

Zerga oinarriaren zehaztapenean, gastu kengarri izango dira honako hauek:

1. Bazkideek emandako ondasun, zerbitzu edo horniduren zenbatekoa, bazkideek egindako lanak eta bazkideek kooperatibari gozamenek lagaturiko ondasunen errentak, aurreko 14. artikulua dioenaren arabera merkatuko balioaz haztatuak, kontabilitatean balio txikiagoa dutela agertzen badira ere.
2. Legezko edo estatutuen betebeharragatik, Nahitaezko Emendio-Fondorako erabilitako zenbatekoaren 100eko 50a.
3. Kooperatibek kooperatiben hezkuntzarako eta sustapenerako eta herritar guztien onurarako beste xede batzuetarako erabiltzen dituzten diru kopuruak, hurrengo artikuluan ezarritako guztia betez gero.
4. Bazkideek sozietatearen kapitalera egindako nahitaezko zein borondatezko ekarpenek sortutako korrituak, are Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeko 57.5. artikuluan araututako ekarpenek sortutakoak ere, eta lege horretako 67.2.b) eta 68 bis artikuluetan ezarritako kontribuzioetarako zuzkidurak, baldin eta korritu tasa ondoko hau baino gehiago ez bada: diruaren legezko korritua gehi bi puntu, bazkideentzat, edo gehi lau puntu, bazkide-laguntzaileentzat. Ekitaldi ekonomikoa ixtean indarrean dagoen legezko korritu tasa hartuko da erreferentziatzat.

Ez dira kengarriak izango kooperatibako partaidetza bereziak ordaintzeko ematen diren kopuruak, baldin eta titularrak ez badira kooperatibako bazkide edo kide elkartu eta partaidetzak sozietatearen kapitaltzat hartu behar badira.

5. Kooperatibek kooperatibarteko lankidetzaren erakundeei ekarri eta kooperatiben finantza-saneamendurako edo kooperatiben nahiz jardura berrien sustapen eta garapenerako erabiltzen diren kopuruak. Kenkari honetaz baliatu ahal izateko, beharrezko izango da zerga-Administrazioa, berariz eta ekarpena egin aurretik, aipatu erakundeari izaera aintzatesi izana, aintzatespen hori, emanek gero, aukerakoa izango dela.

Zerga Administrazioaren aintzatespena izan eta kooperatibarteko lankidetzaren sustapenean ari diren erakundek ez dute kooperatiba elkartuengandik jasotako kopuruaren gaineko zergarik ordainduko, baldin eta kopuru horiek erakundearen sozietate-xedean aurreikusten denerako erabiliak izan direla frogatzen bada.

16. artikulua. Kooperatiben hezkuntzarako eta sustapenerako eta herritar guztien onurarako beste xede batzuetarako nahitaezko kontribuzioa gastu gisa kentzeko betekizunak.

1. Ekitaldi ekonomiko bakoitzean, kooperatiben hezkuntzarako eta sustapenerako eta herritar guztien onurarako beste xede batzuetarako nahitaezko kontribuzioaren zenbateko kengarria ezin da izan haren soberakin garbiaren %30 baino gehiago.

Kontribuzioa kooperatibaren biltzar nagusiak onesten duen planaren arabera aplikatuko da.

2. Kontribuziorako zuzkidurak eta planerako behar diren aplikazioak (gastu arruntak zein ibilgeturako inbertsioak) bereizita agertu behar dira kontabilitatean, kopuruak kontribuziorako direla argi ezarrita duten kontuetan.
3. Kontribuziorako zuzkiduraren zati bat ez bada erabiltzen kooperatibak berak zehaztutako herri onurako xedeetarako, kopuru hori soberakina banatzea onetsi eta hurrengo ekitaldi

ekonomikoan irabazteko asmorik gabeko erakundeei eman beharko zaie, kontribuziorako ezarritako herri onurarako xedeetarako erabil dezaten.

4. Kontribuzioa onetsi gabeko xede baterako aplikatzeak berekin ekarriko du oker erabilitako kopurua aplikazioa gertatzen den ekitaldiko sarreratzat hartzea, foru arau honetako 11. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoa gorabehera.

Aurrean adierazi bezala jokatuko da bazkideen artean banatzen den Nahitaezko Erreserba Funtseko diru kopuruarekin ere, foru arau honetako 11. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa gorabehera.

5. Ekitaldia ixten denean kontribuzioaren emaitzen kontu berezian kargatuko dira gastuen eta errenta negatiboen kontuetako saldoak, eta ondoko hauek bereiziki:
 - a) Trebakuntzako, hezkuntzako eta kultur sustapeneko gastu arruntak.
 - b) Kontribuzioaren xedeetarako erabilitako ibilgetuko ondasunak artatzeko, konpontzeko eta amortizatzekeo gastuak.
 - c) Ondasun horiek besterentzeak sortutako galerak.
6. Halaber, kontu berean sartuko dira sarreren eta beste errenta positibo batzuen kontuetako saldoak, eta ondokoak bereiziki:
 - a) Kontribuzioaren xedeetarako jasotzen diren diru-laguntzak, dohaintzak eta laguntzak.
 - b) Kooperatibak bazkideei ezartzen dizkien diziplinazko zehapenak.
 - c) Aurreko 3. idatz-zatian aipatutako gauzatzeen finantza-etekinak.
 - d) Kontribuzioaren xedeetarako erabiltzen diren ibilgetuko ondasunak besterenduta lortutako mozkinak.
7. Horrela zehaztutako emaitzen kontuko saldoa kontribuzioaren kontura eramango da.

Kontribuzioaren emaitzen kontura pasatutako gastuen, galeren, sarreren eta mozkinen partidak ez dira kontuan hartuko kooperatibaren Sozietateen gaineko Zergaren oinarria kalkulatzeko.

8. Artikulu honetan xedatutakoa araupetutakoaren antzeko kontribuzio edo funts guztiei aplikatuko zaie, xedeak ere antzekoak badira, nahiz eta berari aplikatu beharreko arategiaren arabera izena bestelakoa izan.

17. artikulua. Kengarriak ez diren gastuak.

Kooperatibako bazkideen artean soberakinen kontura banaturiko zenbatekoak, batetik, eta bazkideen ondasun-emate, zerbitzu, horniketa, lan prestazioei eta bazkideek kooperatibari gozamenean lagatako ondasunen errentak, bestetik, ez dira partida kengarritzat hartuko zerga-oinarria zehazteko, eta horiei guztiei foru arau honetako 14. artikulua dioenaren arabera dagokien merkatuko balioa emango zaie.

Gainera, ezin zaie aplikatu Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko IV. tituluko V. kapituluaren xedatutakoa.

17.bis artikulua. Zerga oinarri bereziaren zehaztapena.

Bat. Zerga oinarri berezian foru arau honetako 13.bis artikuluko hirugarren idatz-zatian aipatzen diren sarrera osoak sartzen dira. Gastuak, ostera, ez dira sartzen, sarrera horiekin lotuta egon zein ez egon.

Aipaturiko sarrerei loturiko gastuak zerga oinarri orokorretik kenduko dira.

Bi. Zerga oinarri berezian sartzen diren sarrerei Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 19. artikuluan ezarritako araubidea aplikatuko zaie, bertan ezarritako manuak betez gero.

Hiru. Zerga oinarri berezia ezin da txikitu zerga-oinarri negatiboak konpentsatuta (Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 55. artikuluan aipatutako konpentsazioa). Hori kooperatiben zerga-oinarri orokorrarekin bakarrik egin daiteke.

HIRUGARREN SEKZIOA ZERGA ZORRA

17.ter artikulua. Karga tasa.

Bat. Kooperatiba sozietateen zerga oinarri orokorrei foru arau honetako IV. tituluan edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 29. artikuluan ezarritako karga tasak aplikatuko zaizkie, kasuan kasukoak.

Bi. Sozietate kooperatiboen zerga-oinarri bereziak, hau guztia gorabehera, 100eko 19ko karga-tasa ordainduko du.

18. artikulua. Zergapetze bikoitza ezabatzea.

Kooperatiba babestuen eta babes berezia duten kooperatiben itzulkinen gaineko zergapetze bikoitza ezabatzeko foru arau honetako 24. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

19. artikulua. Enplegu sorkuntzaren ziozko kenkaria.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko arautegian ohartarazten den enplegu sorkuntzaren ziozko kenkaria, ekonomi ekitaldi bakoitzerako ezarritako kasuetan eta baldintzekin ezezik, lan elkartzeko kooperatibetan bazkide-langile berriak edo, oro har, edozein kooperatibatan laneko bazkide berriak, saioaldia gainditu ondoren, behin-betiko onartzearekin ere izango da erabilgarri.

19.bis artikulua. Zerga oinarri bereziari dagozkion kuota kenkariak.

Zerga oinarri berezia inolaz ere ez da txikituko, ez hari dagokion kuotari hobaririk ez kenkaririk aplikatuko. Horren salbuespen izango dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 34. eta 34.bis artikuluetan xedaturiko nazioarteko zergapetze bikoitza ekiditeko kenkariak, zerga oinarri berezian sarturiko errenitei dagozkienak.

Zerga oinarri bereziari dagokion kuota likidoaren zatitik kuota hori osatzen duten sarrerek jasandako atxikipenak edo konturako sarrerak soilik ken daitezke.

LAUGARREN SEKZIOA SOZIEATE-EKARPENEN EGUNERATZEA

20. artikulua. Sozietate-ekarpenen eguneratzea.

Kooperatiben balantzea erregularizatu ahal izango da Sozietateen gaineko Zergari loturik dauden izakundeentzat ezar daitezzen baldintza eta onurekin eurekin, Kooperatibei buruzko Legeetan balantzearen erregularizazioaren emaitzaren norakoari buruz ezartzen denaren kaltetan gabe.

BOSGARREN SEKZIOA

ATXIKIPENAK ETA BESTELAKO KONTURAKOORDAINKETAK

21. artikulua. Atxikipenak eta bestelako konturako ordainketak.

Bat. Kooperatiba sozietateek, indarreko antolamenduari atxikiz bidezko izan daitezen atxikipenak egin beharko dizkiete euren bazkideei eta gainontzekoei, eta bidezko izan daitezen gainerako konturako ordainketak ere egitera beharturik egongo.

Zehazki, lan elkartuzko kooperatibetako bazkideak edo beste edozein kooperatibetako laneko bazkideak direnetan, bereizi egingo dira lan pertsonaletik datozen etekinak higigarrien kapitalari dagozkionetatik, lan etekintzat joko direla, dagokion jarduera-alorrerako, alde berorretan ohizkoak diren ordainketetatik gora gabeko lanordain-aurrerakinak.

Bi. Alde honetatik, dibidendu gisakotzat hartuko da kooperatiba itzulkinaren kontzeptuz bazkideei kredita dakien ekonomi ekitaldiko soberakin erabilgarriaren zatia.

Itzulkin aurreratutzat joko dira Foru Arau honetako 17. artikuluan gastu ez-kengarrietan zehazten diren kopuru eta kontuan izendaturiko gainbalioak.

Hiru. Atxikipena, benetan ordaindutako zenbatekoen zein kontuan ordaindutako gainean egingo da, horiek eskagarriak diren momentutik bertatik.

21 bis. artikulua. Ordainketa zatikatua.

1. Urte bakoitzeko urriko lehen 25 egun naturaletan, kooperatibek zatikako ordainketa eta autolikidazioa egin beharko dute hilabete horretako lehen egunean abian den zergaldiari dagokion likidazioaren kontura.

Kooperatiba txikiek ez dute ordainketa zatikatua ez dute egin beharko, foru arau honetako 13. artikuluan mikroenpresatzat edo enpresa txikitzat hartzeko ezarritakoa betetzen badute.

2. Artikulu honetan aipatzen den ordainketa zatikatua kalkulatzeko oinarria hau izango da: autolikidazioa egiteko epea urriaren 1n amaituta duen azken zergaldiko zerga-oinarria. Betebeharra izan arren Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztu ez bada, oinarria izango da aurkeztutako azken autolikidazioaren edo egindako azken autolikidazioaren zerga-oinarria izango da ordainketa zatikatua kalkulatzeko oinarria.

Lehen esandakoaren arabera, autolikidazioa egiteko epea amaituta duen azken zergaldia urtebete baino txikiagoa bada, zerga-oinarria urtebetekoa izango da, 12 hilabeteko aldia osatu arte.

3. Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa kalkulatzeko, 100eko 5eko tasa aplikatu behar zaio aurreko paragrafoan ezarritako oinarriari. Hortik ateratzen den kuotatik zergadunaren diru-sarreretan egindako atxikipenak edo konturako sarrerak kenduko dira, aurreko zenbakian aipatutako zergaldikoak.
4. Ordainketa zatikatua zerga-zorra izango da, eta kengarria izango da zergaren kuota osoan.

22. artikulua. Arau bereziak.

Bat. Kooperatiba itzulkinak ez dira higigarrien kapitalaren etekintzat hartuko eta, beraz, ez dira atxikipenaren gai izango, honako kasu hauetan:

- a) Sozietate kapitalera, bazkidearen ekarpenak gehituaz, gaineratzen direnean.
- b) Aurreko ekitaldietako sozietate-galerak konpentsatzeko erabiltzen direnean.

- c) Batzar Nagusiak araupetutako Fondo Berezi batean sartzen direnean, bazkideari itzultzeko epea igaro, honen baja gertatu edo galerei erantzuteko edo sozietate-kapitalera ekarpenak egiteko erabil ez ditzan bitartean.

Bi. Aurreko ataleko c) idazatian ohartarazten diren kasuetan, atxikipena egin beharra itzulkin horretaz baliatzeko jarritako lehenengo egunean bertan sortzen da, baliatze hori aurrean aipaturiko edozein eratakoa izanda, eta horren likidaziorako jarritako egunean, hala gertatuz gero, sortaraz daitezzen korrituekin ere.

III. TITULUA

KOOPERATIBETAKO BAZKIDEEZ

23. artikulua. Partida jakin batzuek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan duten tratamendua.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aplikatzerakoan, subjektu pasiboa kooperatiba bateko bazkidea izanez gero, honako arau hauek hartuko dira kontuan:

- a) Higigarrien kapitalaren etekintzat joko dira, Foru Arau honetako 21 eta 22. artikuluetan xedaturikoaren arabera, atxikipenari loturik dauden kooperatiba itzulkinak.
- b) Ez dira inoiz ere zerga oinarria zehazteko kengarri izango bazkideei eratxikigarri izan dakizkien sozietate-galerak.
- c) Sozietate-ekarpenen eskualdaketa edo itzulketaren ondoriozko ondare-aldakuntzen zenbatekoa zehazteko, ekarpen horien eskuraketa kostuari gaineratu egingo zaizkio ordaindutako sarrera-kuotak eta aldizkakoak eta, Euskadiko Kooperatibei buruzko Legearen edo, hala badagokio, aplikagarri izan dadin Kooperatibei buruzko Legearen arabera, bazkideari egotziak eta dirutan itzuliak edo bazkidearen titulartasunekoak izan eta Batzar Nagusiak araupetutako Fondo Berezi batean sarturik dauden itzulkinez konpentsatuak izan diren sozietate-galerak.
- d) Ez da bazkide baten ekarpenen eskualdaketa edo itzulketa egon dela joko, kooperatiba batek haren izenean ekarpen horiek beste kooperatiba batera aldatzen dituenean, baldin eta honako eskakizun hauek betetzen badira:
- Ekarpenaren aldaketa bazkide titularra beste kooperatiba batera aldatzearen ondorioa izatea.
 - Bazkide titularrak sozietate-ekarpenaz baliatzeko ahalmenik ez hartzea.
 - Bazkideak baxa hartzen dueneko kooperatibaren Estatutuek bere ekarpena sartzen den kooperatiba berrira aldatzera behartzea, bazkideak inolako itzulketarik lortu ahal izan gabe.
 - Kooperatiba hartzailean aldatutako ekarpenaren eskuraketa-kostua baloratzeko bide ematen duten datuak berariz agertarazita geratzea, bazkidea jatorrizko kooperatibara eta, hala izanez gero, lehengoetara, sartu zen unetik.
- e) Ez dira gauzako lan-etekintzat joko kooperatibek borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeei egindako ekarpenak, baldin eta ekarpen horiek borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundearen estatutuetan zein kooperatibaren estatutuetan ezartzen diren obligazioak betez egin badituzte, eta ekarpenen onuradunek izan behar dute edo bazkide langileak edo lan-bazkideak, Gizarte Segurantzak langile autonomoentzat duen araubide bereziari atxikitakoak. Gainera, ekarpen horien xedeak ondoko prestazioak finantzatzea izan behar du: minusbaliatuentzako sorospena, osasun-laguntza, aldi baterako ezintasuna, haurdunaldiko arriskua, amatasuna, enplegurako laguntza edo heriotzako sorospena

24. artikulua. Kooperatiba itzulkinen zergapen bikoitza ezabatzea.

Babespeko kooperatibetako bazkideek, Sozietateen gaineko Zergaren zergapeko badira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 33.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuko diete jasoten dituzten kooperatiba itzulkinen, zergapen bikoitza ezabatzearen. Babes berezipeko kooperatiba izateagatik, Foru Arau honetako 26.2 artikuluan arautzen den hobaria izan badute etekin horiek, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 33.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuko diete itzulkin horiei.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gora-behera, artikulua honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko sozietate kooperatiboen zerga-oinarri berezian sartzen diren itzulkinen.

IV TITULUA KOOPERATIBEI AITORTURIKO ZERGA ONURAK

25. artikulua. Babespeko kooperatibei aitorturiko onura fiskalak.

Babespeko kooperatibek honako onura fiskal hauek izango dituzte:

1. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Agiridunen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira, aplikagarri izan dadin edozein kontzeptutan, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Agiridunen gaineko martxoaren 23ko 3/1989 Foru Arauaren 29.1 artikuluan ohartarazten den kargaren gai diren ondoko egintza, hitzarmen eta eragiketetan salbu:
 - a) Erakuntza, kapital zabalkuntza, bategite eta zatitze eragiketak.
 - b) Maileguak eratu eta kitatzea, are obligazioetan eratuak ere.
 - c) Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeko 68 bis artikuluan ezarritako kontribuzioa aplikatzen den ondasun eta eskubideen eskuraketak, hau da, artikulua horretan ezarritako helburuak betetzeko egiten direnak.
2. Sozietateen gaineko Zergan, zerga-oinarriari %20ko karga-tasa aplikatuz tributatuko dute.

Hala ere, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan enpresa bat mikroenpresatzat edo enpresa txikitzat hartzeko ezarritakoa betetzen duten tamaina txikiko kooperatibei zerga horretan %18 karga-tasa aplikatuko zaie.

Babestutako kooperatibei Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 59.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie; haien benetako kuota ezin da izan zerga-oinarriaren %9 baino gutxiago, oro har, edo zerga-oinarriaren %8 baino gutxiago, berriz, kooperatibak aurreko lerroaldean aipatutako karga-tasa jasaten badu.

Kooperatibak aurreko ekitaldiko lan-kontratuko plantila mugagabearen batez besteko kopurua mantentzen badu edo kopuru hori gehitzen badu, aurreko zenbakiko ehunekoak barik honako hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren: %7 eta %6.

3. Halaber, aktibo finko amortizagarri berriko elementuek amortizatzeko askatasuna izango dute Sozietateen gaineko Zergan, hain zuzen ere, kooperatiba dagokion erregistroan inskribatu zenetik hiru urteko epean eskuratu badira.

Ekitaldi bakoitzean, gutxienez gutxieneko amortizazio normala aplikatu ondoren, amortizatzeko askatasuna dela-eta tributazioan ezin da kendu kopuru hau baino gehiago: emaitza-kontuko saldoa ken, batetik, Nahitaezko Erreserba Funtsera nahitaez egin beharreko aplikazioak eta, bestetik, soldatapeko langileen partaidetzak.

Elementu beretarako, onura hori bateragarria da Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko V. tituluko III. kapituluan ezarritako inbertsioengatikoen kenkariekin.

Zenbaki honetan aipatzen den amortizatzeko askatasuna autolikidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta artikuluko 1. zenbakiko c) letran araututako tratamendu bera jasoko du.

4. Kuotaren eta, hala egonez gero, errekaruen 100eko 95eko hobaria izango dute nekazaritzako eta taldekako ustiapenezko kooperatiben landalur-ondasunei dagokien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan.

26. artikulua. Babes berezipeko kooperatibei aitorturiko onura fiskalak.

Babes berezipeko kooperatibek, aurreko artikuluan adierazitako onurez gainera, honako hauek ere izango dituzte:

1. Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Agiridunen gaineko Zergan, sozietate eta estatutu-helburuak zuzenean betetzeko diren ondasun eta eskubideak eskuratzeko eragiketetikiko salbuespena.
2. Sozietateen gaineko Zergan, kuota likidoaren %50eko kenkaria aplikatu dezakete.

Nekazaritzako Ustiategiak Berriztatzeari buruzko 1995eko uztailaren 4ko 19/1995 Legeko 5. artikulua lehentasunezko elkarte-ustiategiak aipatzen ditu; bada, ustiategi horiek babes bereziko nekazaritzako kooperatibak badira, foru arau honetan ezarritakoaren arabera, kuota likidoaren kenkaria %75 izango da.

Era berean, foru arau honetako 25. artikuluko 2. zenbakiaren hirugarren eta laugarren lehen zatietan ezarritako portzentajeak zuzendu egingo dira zenbaki honetan aurreikusitako kenkari-portzentajeetatik eratorritako proportzioak aplikatzeko bidez.

Zenbaki honetan aipatzen den kenkaria autolikidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta ezin da aldatu borondatezko aitortzearen epea amaituta badago.

3. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 67 artikuluko 1. zenbakian kenkarientzat ezarritako muga aurreko 2. zenbakian aipatzen diren kenkariak aplikatu ondoren ateratzen diren kuotaren gainean aplikatuko da.

27. artikulua. Bigarren mailako kooperatibak.

Bat. Aurreko 11. artikuluan ohartarazten diren zioetarik ezeinetan eroriak ez diren bigarren eta hurrengo mailako kooperatibek Foru arau honetako 25. artikuluan ohartarazten diren onura fiskalak izango dituzte.

Bi. Aurreko 11. artikuluan ohartarazten diren zioetarik ezeinetan erori ez eta babes berezipeko kooperatibak, soil-soilik, elkartzen dituzten bigarren eta hurrengo mailako kooperatibek, gainera, Foru Arau honetako 26. artikuluan ohartarazten diren onura fiskalak izango dituzte.

Hiru. Elkartutako kooperatibak babestuak edo babes berezikoak badira, aurreko 25. artikuluan ezarritako zerga-onurez gainera foru arau honetako 26.2 artikuluan ezarritako kenkaria ere aplikatu ahal izango dute; kenkari hori babes bereziko kooperatibekin egindako eragiketen ondoriozko emaitzei dagokien kuota likidoari soilik aplikatuko zaio.

28. artikulua. Kooperatiben baterakunde, federakunde eta konfederakundeak.

Kooperatibei buruzko Legeetan xedatutakoaren arabera eratuak diren Kooperatiben baterakunde, federakunde eta konfederakundeek honako tributu onura hauek izango dituzte:

- a) Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Agiridunen gaineko Zergaren salbuespena, babes berezipeko kooperatibak salbuetsita daudeneko egintza, hitzarmen eta eragiketetan eurretan.
- b) Sozietateen gaineko Zergaren salbuespena, zerga honi buruzko arautegian jarritako baldintzetan.
- c) Kuotaren eta, hala egonez gero, errekaruen 100eko 95eko hobaria izango dute nekazaritzako eta taldekako ustiapenezko kooperatiben landalur-ondasunei dagokien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan.

29. artikulua. Onura fiskalen aplikazioa eta galera.

Foru Arau honetan ohartarazten diren salbuespen eta onura fiskalak babespeko eta, hala izanez gero, babes berezipeko kooperatibei aplikatuko zaizkie, haien gozamenaren bidez kotatzen buruzko aurreiazko administrazio-aldarrikapenik behar izan gabe.

Babes fiskalpeko kooperatibaren izaera galtzeko zioetarik, Foru Arau honetan sailkatuak direnetarik, bat gertatzeak, zerga-araubide orokorra aplikatzea ekarriko du, Foru Arau honetako 14. artikulua dioena kontuan hartuta, eta zio hori gerta dadineko ekonomi ekitaldian izandako onurak kentzea, Foru Zerga-Arau Orokorrean zerga urratze eta zehapenei eta berandutza korrituei buruz ohartarazten denaren eta, zehazki, Arau horren 84. artikuluan eta 87.eko 3. atalean isunaz besteko zehapenei buruz xedatzen denaren kaltetan gabe.

30. artikulua. Egiatzena eta ikuskapena.

Zerga Administrazioak Foru Arau honetan adierazten diren zerga onurez baliatzeko baldintzak edo eskakizunak betetzen direla egiaztatuko du eta, hala badagokio, kooperatibaren zerga goera dela eta beharrezko izan dadin erregularizazioa egingo ere.

V. TITULUA KREDITU KOOPERATIBEZ

31. artikulua. Kreditu kooperatiben zerga-aldetiko definizioa.

1. Foru Arau honen ondorioetarako, babespeko kooperatiba iritziko zaie, Kreditu Kooperatibei buruzko maiatzaren 26ko 13/1989 Legearen eta aplikagarri zaizkien Kooperatibei buruzko legeen printzipio eta xedapenei atxikitzen zaizkien izakundeei, euren erakuntza eguna dena dela, baldin eta Espainiako Bankuaren Erregistroan, Merkataritzazkoan eta Kooperatibenean errolderatuak badira.
2. Ez dira horrelakotzat hartuko, izen horretaz baliatu eta aurretik deskalkifikatuak izan ez badira ere, Kreditu Izakundeen Zentzabide eta Kontu-hartzeari buruzko uztailaren 29ko 26/1988 Legean adierazten diren urratze larri edo oso larriak egin izanaren zioz zehatuak izandako Kreditu Kooperatibak, edo Foru Arau honetako 12. artikuluan ohartarazten diren zioetakoren batean eroriak direnak, artikuluan horren 6, 10 eta 13. zenbakietan adierazten direnak salbu, Kreditu Kooperatibei aplikatzeko, ondoko hauekin ordezkatzeko baitira:
 - a) Bazkideei ziurtaturiko itzulkinak kooperatibarekin izandako eragiketen heinekoak ez direnean, edo itzulkin horiek bazkide ez diren pertsonen banatzen zaizkienean. Laneko bazkiderik egonez gero, ez da babespekoaren izaera galduko, ziurtatzen zaizkien itzulkinak ekonomi ekitaldian jasotako lanordain-aurrerakinen heinekoak badira.
 - b) Ekonomi ekitaldian bazkide ez den inorekin, kooperatibaren guztirako eskuartearen 100eko 50etik gorako eragiketa aktiboak izatea.

Kreditu kooperatibek kooperatiba elkartuetako bazkideekin izan ditzaten eragiketak, diruzaintza-gaizkizunak bankuarterko merkatuan ezartzekoak eta lege koefizienteak

betetzeko edo diruzaintza-gaindikinak ezartzeko eskura daitezzen errenta finkozko balore eta finantza-aktiboak ez dira aipatu ehunekoan konputatuak izango.

- c) Sozietate kapitala ezarritako nahitaezko gutxienezkotik behera gutxitzea, arauzko epean berrezarri gabe, edo kooperatibak, aurretik beharrezko kapital zabalkuntza eta aginduzko estatutuen aldakuntza egin gabe, bere estatutu-eremutik kanpo eragiketak edo zerbitzuak egitea.
3. Kreditu kooperatibei ez zaie aplikatuko foru arau honetako 13.bis, 17.bis, 17.ter eta 19.bis artikuluetan ezarritakoa.

32. artikulua. Aitorturiko onura fiskalak.

Aurreko artikuluan aipatzen diren kreditu kooperatibek honako onura fiskal hauek izango dituzte aplikagarri:

- 1. ...
- 2. Euren izaera eta jarduerak direla-eta 26. artikuluan adierazten direnetarik aplikagarri zaizkienak, manu horren 2 eta 3. ataletan araupetzen direnak salbu.

VI. TITULUA KOOPERATIBA-TALDEEN ARAUBIDEA

33. artikulua. Sozietate kooperatiben taldea.

Bat. Estatutuetako arauak direla eta enpresa-jardueretan lotura-harremanak dituzten kooperatiba-sozietateen taldeek Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko VI. tituluko VI. kapituluko zerga-baterakuntzaren araubidea aplikatzea hauta dezakete. Hautatuz gero, foru arau honetan xedatutakoaren kontra ez datorren guztia aplikatuko da.

Bi. Zerga-baterakuntzaren araubideari dagokionez, hau da kooperatiba-sozietateen taldea: taldearen buru den entitateak eta haren bazkide diren kooperatibek osatutako multzoa; taldeburuak estatutuetan araututako erabaki-ahalmenak erabiltzen ditu.

Kooperatiba-sozietateen taldeko burua izan daiteke edo kooperatiba-sozietate bat edo beste era bateko entitate bat; beste era batekoa bada, ezinbestekoa da haren helburu bakarrak taldeko kooperatiben enpresa-garapena eta epe luzerako estrategiak planifikatzea eta koordinatzea izan dadila. Kooperatibek soilik eduki dezakete entitate horren gaineko partaidetza.

Hiru. Lotura-harremanek, sozietate kooperatiben taldea osatzen duten kooperatibetako bakoitzak lortutako gaindikin garbia, datorren atalean adierazten denaren arabera, solidarioki birbanatzeko konpromezua suposatuko dute.

Lau. Birbanaketak gaindikin garbiaren 100eko 25a, gutxienez, hartuko du zergak eta, Legearen indarrez, nahitaez emendio-fondoetarako diren kopuruak kendu ondoren, eta taldeko kooperatibetako bazkideek egindako eragiketa, jarduera eta zerbitzu kooperatibaratuen diru-kopuruaren zuzeneko heinean egingo da.

34. artikulua. Sozietate kooperatiben taldeen araubidearen aplikazioa.

Bat. Sozietate-taldeen araubidea, taldea osatu behar duten sozietate kooperatiba guztiek eta bakoitzak horrela erabakitzen dutelako eta beste barik aplikatuko da. Izakunde taldeburuak aipatu erabakien berri emango dio zerga-Administrazioari, araubide hau aplikagarri den zergaldiko lehen hilabetearen azken eguna baino lehen, eta honako dokumentazioa aurkeztuko du:

- a) Sozietate kooperatiben Batzar Nagusien erabakia, sozietate-taldeen araubideari heldu nahi dutela adierazizkoa.
- b) Aurreko artikuluko 3. atalean aipatzen den konpromezua agertarazten duen eskritura publikoa.
- c) Taldeko sozietate kooperatiben estatutuak.

Bi. Sozietate-taldeen araubidea aukeratu eta gero titulu honetan ezartzen diren eskakizunak bete ditzaten sozietate kooperatibak nahitaez sozietate kooperatiben taldean sartuta geratuko dira, eskakizunok bildu diren ekitaldiaren hurrengoko eraginez.

Kanpoan geratuko dira, ostera, eskakizunok bete ez ditzaten sozietate kooperatibak, kanpoan geratze horrek eskakizunok betetzeari utzi dakion urtekitalditik bertatik aurrerako indarra izango duelarik.

35. artikulua. Ezabaketak.

Sozietateen gaineko Zergaren zerga oinarri bateratua zehazteko, Zerga horri buruzko arautegian eta Foru Arau honetan bildutako xedapenak aplikatuko dira, ondorengo hauek direla-eta bidezko diren talde-barruko eragiketen ziozko ezabaketak soilik egingo direla:

- a) Taldeko sozietate kooperatiben arteko itzulkinak.
- b) Gain hartutako beharkizunak betez, taldeko sozietate kooperatibek elkarri eman behar dizkieten diru-laguntzei ez zaie partida kengarri ez sarrera kontagarri iritziko.
- c) Izakunde taldeburuak banatutako emaitzak.

36. artikulua. Kooperatiba-sozietateen taldea: kuotan aplika daitezkeen kenkariak eta zergapetze bikoitza ezabatzea.

1. Kooperatiba-sozietateen taldeen kuota osoari eta kuota likidoari foru arau honetan eta haien araubide orokorrean ezarritako kenkariak aplikatu ahal zaizkie.

Kenkari horiek aplikatzeko ezarritako baldintzak kooperatiba-sozietateen taldeari dagozkie.

2. Kooperatiba-sozietate batek talde batean sartzean aplikatu gabe dauzkan kenkariak taldearen kuota osoari edo kuota likidoari kendu ahal izango zaizkie, sozietateak tributazio indibidualeko araubidean izango lukeen muga berarekin.
3. Zergapetze bikoitza ezabatzeko, foru arau honetan ezarritako espezialitateak hartuko dira kontuan.

37. artikulua. Sozietate kooperatiben taldeen araubidea galtzea.

Arautegi orokorrean sozietate-taldeen araubidea galtzeko adierazten diren zioez gainera, aipatu araubidea galduko da kooperatiba-gaindikin baliagarria solidariko birbanatzeko konpromozua betetzen ez bada.

Sozietate-taldeen araubidea galtzeko zioa izango da, halaber, izakunde taldeburuak, sozietate kooperatiba ez denean, 33. artikuluko 2. atalean adierazten den helburu soilerako jarduerak egitea.

38. artikulua. Atxikipenak.

Sozietate kooperatiben taldeko izakundearen artean ordaindutako higigarrien kapitalaren etekinak ez dira atxikipenaren gai izango.

39. artikulua. Izakunde taldeburua.

Zerga-alorreko antolamendu juridikoan sozietate-talde baten sozietate nagusiari ezartzen zaizkion ahalmen, erantzukizun eta betebeharrak izakunde taldeburuari eratzikiko zaizkio, baldin eta hori Foru Arau honetan ezarritakoaren aurka ez badago.

VII. TITULUA HERRI ONURAKO ETA GIZARTE EKIMENEN KOOPERATIBEZ

40. artikulua. Herri onurako kooperatiben definizioa.

Zergei dagokienez, herri onurako kooperatibatzat joko dira horrelako kalifikazioa dutenak, herri onurako kooperatiba sozietateen prozedurari eta betekizunei buruzko Araudia onetsi duen otsailaren 2ko 64/1999 Dekretuarekin bat etorritik, baldin eta betekizun hauek betetzen badituzte:

- a) Inoiz emaitza positiborik lortzen bada, emaitzak ezin dira bazkideen artean banatu, kooperatibaren xedeetarako erabili behar direlako.
- b) Kontseilu Artezkariko karguetan ari direnek ez dute ordainsaririk jasoko.
- c) Bazkideak, edo bazkideekin Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 16. artikuluko 2. idatz-zatian azaldutako harremanak dituzten pertsonak, ezin dira izan kooperatibaren jardueren onuradun nagusiak, eta ezin dute prestazio edo baldintza berezirik eduki kooperatibaren zerbitzuak jasotzeko.

41. artikulua. Gizarte ekimeneko kooperatiben definizioa.

1. Zergei dagokienez, gizarte ekimeneko kooperatibatzat joko dira irabazteko asmorik gabeko kooperatibak, edozein motatakoak izanda ere, baldin eta sozietatearen xedea hauetarikoa bada: laguntza zerbitzuak egitea, osasun, hezkuntza, kultura edo gizarte jarduerak direla bide; edo gizartetik bazterturiko pertsonak laneratzeko jarduera ekonomikoak egitea; edo, oro har, merkatuak asetzen ez dituen gizarte-beharrizanak asetzeko jarduerak.
2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoaren ondoretarako, kooperatiba sozietateek irabazteko asmorik ez dutela uste izango da baldintza hauek betetzen direnean:
 - a) Inoiz emaitza positiborik lortzen bada, emaitzak ezin dira bazkideen artean banatu, kooperatibaren xedeetarako erabili behar direlako.
 - b) Kontseilu Artezkariko karguetan ari direnek ez dute ordainsaririk jasoko.
 - c) Bazkide langileen ordainsariak, edo lan-bazkideenak, halakorik badago, eta besteren konturako langileen ordainsariak ezin dira izan arloko soldatapeko langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan jarduera eta lanbide-kategoria bakoitzarentzat ezarritakoaren 100eko 150etik gorakoak.
 - d) Bazkideak, edo bazkideekin Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 16. artikuluko 2. idatz-zatian azaldutako harremanak dituzten pertsonak, ezin dira izan kooperatibaren jardueren onuradun nagusiak, eta ezin dute prestazio edo baldintza berezirik eduki kooperatibaren zerbitzuak jasotzeko.

42. artikulua. Herri onurako kooperatibei eta gizarte ekimeneko kooperatibei aintzatetsitako zerga onurak.

1. Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira, aplikagarri izan dadin edozein kontzeptutan, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 23ko 3/1989 Foru

Arauaren 29. artikuluko 1. idatz-zatian ezarri den kargaren gai diren ondoko egintza, kontratu eta eragiketetan salbu:

- a) Eraketa, kapital zabalkuntza, bategite eta zatitze egintzak.
 - b) Maileguak eratu eta kitatzea, are obligazioetan eratuak ere.
 - c) Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeko 68 bis artikuluan ezarritako kontribuzioa aplikatzen den ondasun eta eskubideen eskuraketak, hau da, artikuluko horretan ezarritako helburuak betetzeko egiten direnak.
 - d) Sozietatearen helburuak eta estatutuetan ezarritakoak betetzeko zuzenean erabiliko diren ondasun eta eskubideen eskuraketak.
2. Sozietateen gaineko Zergan, Herri Onurako Kooperatibei eta Ekimen Sozialeko Kooperatibei aplikatzeko moduko zerga-araubidea irabazikoak ez diren erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko Foru Arauko 7-16 bitarteko artikuluetan ezarritakoa izango da. Pertsona juridikoek egindako dohaintzei nahiz ekarpenei, Herri Onurako Kooperatiben aldeko enpresa-lankidetzako hitzarmenei eta Ekimen Sozialeko Kooperatibei, halaber, foru arau honetako 26. artikuluko III. tituluko II. kapituluko artikuluko aplikatuko zaizkie.
3. Toki-zergetan, irabazikoak ez diren erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko Foru Arauko 17. artikuluan ezarritako zerga-araubidea aplikatuko zaie.

43. artikulua. Zerga onurak galtzeko kariak.

Herri onurako kalifikazioa edukitzeko edo herri onurako zein gizarte ekimeneko kooperatiba izateko betekizunak betetzeari utziz gero (betekizunok arestian azaldu dira, 40 eta 41. artikuluetan), kooperatibak galdu egingo ditu 42. artikuluan azaldu diren zerga onurak, aipatu kalifikazioa edo izaera galdu duen ekitaldi ekonomikotik bertatik hasita. Gainera, zergen arloko urratzei, zehapenei eta berandutzagatiko korrituei buruz Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoa beteko da, eta bereziki, 84. artikuluan eta 87. artikuluko 3. idatz-zatian isunez besteko zehapenei buruz xedatutakoa.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Eraldakuntzako nekazaritzako sozietateak.

Abuztuaren 3ko 1776/1981 Errege Dekretuan jasotzen diren helburua betetzeko eratuak izan eta dagokien Erregistroan erroldaturik dauden Eraldakuntzako nekazaritzako sozietateek ondoko onura fiskal hauek izango dituzte:

- a) Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Agiridunen gaineko Zergan, kapital erakuntza eta zabalkuntzazko egintza guztietarako salbuespena.
- b) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, egiten dituzten jardueri dagozkien kuota eta errekarquen 100eko 95eko hobaria.

Onura horietaz baliatzea, Eraldakuntzako nekazaritza sozietateen berezko ezaugarrien funtsezko aldaketarik ez egitera, dagokien Erregistroan erroldatuak izateko beharrezko eskakizunak betetzen jarraitzera eta sozietate horiei buruzko arauak ez haustera baldintzaturik egongo da.

Lehen aipaturiko onura fiskalen aplikazioari eta egiaztapenari dagokienean, Foru Arau honetako 31 eta 32. artikuluek diotena aplikatuko zaie Eraldakuntzako nekazaritzako sozietateei.

Bigarrena. Lan elkartuzko kooperatibak.

Zerga-babesa duen lan elkartuko kooperatiba bateko bazkideen %50 gutxienez desgaituak badira eta frogatzen bada kooperatiba eratu zenean bazkide horiek langabezian zeudela, kooperatibak jasaten duen Sozietateen gaineko Zergaren kargari %90eko murrizketa aplikatuko zaio sozietate-jardueraren lehenengo bost urteetan, bazkide horien ehunekoa aldatu ezean.

Hirugarrena. Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren aldarazpena.

1. Zazpigarren atala gaineratzen zaio Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 33. artikuluari, honako idazkera duela:

«7. Zergapen bikoitza galarazteko kenkaria, babespeko eta babes berezipeko kooperatiben itzulkiniei dagokiena, Kooperatiben Zerga-Araubideari buruzko Foru Arauaren 26. artikuluan xedatzen denari atxikiz egingo da.»

2. Ezabatu egiten dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 29. artikulua 2.c) eta 3.a) atalak.

3. Sozietateen Gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 29. artikuluari 9 eta 10. atalak gehitzen zaizkio, honela idatzita geratuko dela:

«9. Kreditu Kooperatibek eta Baserritarren Kutxek 100eko 28ko tasaren arabera ordainduko dute zerga.

10. Babes fiskalpeko kooperatibek 100eko 21eko tasaren arabera ordainduko dute zerga.

Dena dela, Foru Arau honen 49. artikuluan enpresa txikitzat jo ahal izan daitezen zehaztutako betekizunak badituzten babes fiskalpeko neurri txikiko kooperatibek 100eko 19ko tasa izango dute 0 eta 60.101,21 euro bitarteko likidazio oinarrian eta, halan bazegokio, 100eko 21ekoa gainerantzeko likidazio oinarrian.

Aurreko lerroaldian oharmandakoaz baliatzeko ezinbestekoa izango da entitatearen gizarte kapitalaren 100eko 80a baino gehiago pertsona fisikoena izatea urtekitaldia itxi dadin egunean.»

4. Aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 39. artikulua 1. atala, honela idatzita geratuko dela:

«1. Zergaren tasa orokorraren menpeko subjektu pasiboek eta babes fiskalpeko kooperatibek kuota likidotik kendu ahal izango dituzte ekitaldiaren kontabilitate emaitzatik etorri eta ekoizpenezko inbertsioetarako erreserba eta/edo Ingurugiroa artatu eta hobetzeko edo energia aurrezteko jardueretarako erreserba deritzon erreserba bereziko erabiltzen dituzten kopuruen 100eko 10a; erreserba honek honako baldintza hauek bete beharko ditu:»

Laugarrena. Ekoizleen erakundeen programa eragileak eta ekintza planak fruta eta barazkien arloan eta koipeen arloan.

Ekoizleen erakundeek, ekoizle edo jarduleen erakundeen elkarteek eta horien arteko batasunek egiten dituzten jarduketak ez dira inola ere zerbitzutzat joko, baldin eta jarduketa horiek euren programa eragileak eta ekintza planak gauzatzeko egiten badituzte, fruta eta barazkien arloko eta koipeen arloko merkatu-erakunde erkideei buruzko Europako Batasuneko arauak betetzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Aurreko ekitaldietako kuota negatibo osoak, hots, kooperatiben zergapideari buruzko abenduaren 17ko 9/1991 Foru Arauaren 23. artikuluan xedatzen denaren itzalpean zehaztuak izan eta honako Foru Arau indarrean sartzerakoan konpentsatu gabe daudenak, konpentsatu ahal izango dira zehaztu zireneko zergaldia hasi eta hurrengo eta elkarren segidako 15 urteetan amaitzen diren zergaldietan lortutako zerga oinarri positiboekin.

Alde horretatik, aipatu kuotak zerga oinarri bilakatuko dira beren zehaztapen unean erabili ziren karga-tasak aplikatuz. Aurreko eragiketen ondoriozko zerga oinarrien batura zenbateko negatiboa denean soilik erabili ahal izango da aurreko lerroaldean aipatzen den konpentsazioa.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Honako Foru Araua indarrean sartzerakoan indargabeturik geratuko dira bertan xedatzen denaren aurkakoak diren lerru bereko edo beheragoko xedapen guztiak eta bereziki Kooperagiben Zergapideari buruzko abenduaren 17ko 9/1991 Foru Araua.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean sartzea.

Honako Foru Araua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadin egunean sartuko da indarrean eta 1997ko urtarrilaren lehenaz geroko ekitaldietarako eragina izango.

Aurreko lerroaldean xedatzen dena gorabehera, beren zergaldia 1997ko urtarrilaren lehenaz gero hasia eta Foru Arau hau indarrean sartu baino lehen amaitua duten kooperatibek lehen indarrean zegoen arautegiaren aplikazioa aukeratu ahal izango dute.

Bigarrena. Arauak emateko gaikuntza.

Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzetako Foru Aldunari honako Foru Araua aplikatu eta garatzeko beharrezko arauak emateko baimena ematen zaie.